

**GONZALO ANTON** (Alaveseko presidentea)

«Bidaia luzea da, eta zaila da jarrera ezkorrekin urrun heltzea»

«Taldeari buruz ezer gutxi dakigu, baina, jakinarazi digutenez, kalitate handiko aurrelaria dute»

**ANTONIO KARMONA** (Alaveseko atzelaria)

«Turkiako Liga orain dela gutxi ezagutu dugu, eta handitzen ari da, zaleek lagunduta»

«Ankaratik emaitza ona ekarri behar dugu, bigarren partida Gasteizen erabaki ahal izateko»

ALAVES. Lehen partida irailaren 19an jokatuko dute, eta bigarrena, berriz, bi aste geroago, urriaren 3an

Jon Rejado | **GASTEIZ**

Argitu da zein izango den Alavesen kontra lehiatuko den taldea UEFAko Kopako lehen kanporaketan. Aurkaria zein zen jakin aurretik zegoen urduritasuna, ordea, ezjakintasun bilakatu da, orain dela bi urte gertatu bezala, taldearen izena ez baita oso ezaguna: Turkiako MKE Ankaragucu taldea. UEFAk egindako egutegia aintzat hartuta, Alavesek lehen partida Ankaran jokatuko du irailaren 19an, eta Mendizorroztan jokatuko da partida erabakigarria bi aste ondoren, urriaren hiruan. Hortaz, Manerenak etxean erabakitzeke aukera paregabea izango dute, orain dela bi urte izan ez zuten auktura.

Aurtengo aurkaria apur bat ezagunagoa izan arren —Ankara hiriburuko talde garrantzitsuenak da—, Turkiako Ligan talde garrantzitsuenak itzalpean dago. Dena den, Turkiako futbolak azken urteetan izan duen gorakada ikusita, iragan denboraldian lortu zuen laugarren postua kontuan hartzekoa da, taldearen izena ezaguna bada ere. Horretaz gain, 1972 eta 1981 urteetako Kopak irabazi zituen Turkian, eta horrek zer pentsatua ematen du, Galatasaray eta Besiktas taldeak menpean hartu baitzituen.

Ankaragucun dauden jokalaririk gehienak ezegunak izan arren, taldearen erasorako jokalaririk ezin hobea fitxatu du aurtengo denboraldirako: Radu Niculescu aurrelari errumaniarra. Aipatutako jokalariek Galatasarayn jokatu zuen iragan denboraldian, eta Txapelaldun Ligan gol bat sartu zuen. Dumi Ngobe Hegoafrikako selekzio-ko erdilaria ere aipatzekoa da, baita atezaina ere, Kemal Unsal, Munduko Kopan Turkiako hirugarren atezain moduan parte hartu baitzuen.

Inoiz ez du gainditu Europako txapelketan lehen kanporaketa

Ankaragucuk gogo handiz hartu du aurtengo UEFA Kopa, 1910. urtean sortu zenetik inoiz ez baitu gainditu Europako edozein txapelketako lehen kanporaketa. Orain dela hiru denboraldi, UEFA Kopako lehen kanporaketan galdu zuen Athleticok Madrilen kontra, eta, Europako Errekopan hiru aldiz parte hartu

Turkiako MKE Ankaragucu, Alavesen lehen aurkaria UEFAko Kopan

Lehen partida Ankaran jokatuko dute, eta Gasteizen erabaki ahal izango du Maneren taldeak



EGUNKARIA

EUSKAL HERRIAN JOKALARI EZEZAGUNAK. Argazkian, Turkiako Ligan Malatyaspor taldearen aurka jokatu zuen Ankaragucuren hamaikakoa: Ozgultekin atezaina; Barifi, Kutlu, Ozlem eta Carabas atzelariak; Kartal, Kelefi, Turk Mehmet eta Namdar erdilariak eta Tafi Demir eta Ozsarac.

BESTE KANPORAKETA BATZUK

Paris S. G. (Fra.)—Ujpesti (Hun.)
Sporting Lisboa (Por.)—Partizan (Jug.)
CSKA Mosku (Err.)—Parma (Ita.)
Anderlecht (Hol.)—Stabaek (Nor.)
Lazio (Ita.)—Xanthi (Gre.)
AIK Solna (Sue.)—Fenerbahce (Tur.)
Sparta Praga (Tx.)—Siroki Brijeg (Bos.)
Celta (Gal.)—Odense (Dan.)
Porto (Por.)—Polonia Vars. (Pol.)
Gomel (Bie.)—Schalke 04 (Ale.)

arren, inoiz ez du lehen kanporaketa gainditzeko biderik aurkitu.

Horretarako, Mihail Stoichita entrenatzaile errumaniarra fitxatu du aurtengo denboraldian. Aipatutako entrenatzailearen eskutik ere heldu dira fitxaketa garrantzitsuenak, Radu Niculeskurena kasu. Hortaz,

taldea berri ostean, European zeresana emateko asmoarekin hasi dute aurtengo denboraldia. Hasierako emaitzak, ordea, ez dira baikorregiak izan.

Abuztuaren 9an hasi zen Liga Turkian, eta, hiru jardunaldi jokatuta ostean, zazpigarren postuan dago Alavesek UEFA Kopan izango duen aurkaria. Partida bat irabazi du, beste bat berdindu eta hirugarrena galdu. Horretaz gain, lau gol sartu ditu, eta hiru jaso. Orain arte lortutako emaitzak ikusgarriak izan ez badira ere, txapelketa hiru asteko aurrerapenarekin hasteak erritmo biziagoa eman diezaioke Ankaragucuri, Alavesen kontrako partidari aurre egiteko.

Alavesek lehen partida Ankarako Andokuz Mayis futbol zelaiaren jokatuko du. 19.000 zale zalapartatsu elkartzeko dira bertan.

ARABAKO FORU ALDUNDIA SARIA

Dinamo Bukarest taldearen kontra aurkeztuko da Maneren taldea

Irailaren 7an jokatuko du Alavesek bere zaleen aurrean aurkezteko partida Dinamo Bukaresten kontra. Dagoeneko ohitura bihurtu da Gasteizko taldean, Liga hasita dagoela, zaleen aurrean aurkezteko partida jokatzea. Joan den urtean Milanen kontra egin zuen, eta aurten Dinamoren kontra egingo du; Arabako Foru Aldundia saria jokoan izango da. Aipatutako taldearen kontrako partida 20:30ean jokatuko dute, eta sarreara doan izango da, bazkideentzat zein bazkide ez direnentzat. Azken horiek, ordea, gonbidapenak eskuratu beharko dituzte Arabako Foru Aldundian bertan.

Gasteizko taldeak azken denboraldietan izan duen bilakaerak aurkezteko partidatan Europa mailako talde garrantzitsuen kontra jokatzeke aukera eman dio. Milanek, Romak eta Dinamo berak jokatu izan dute aurreko urteetan Mendizorroztan, eta Maneren taldearekin neurtu izan dituzte indarrak. Hortaz, Foru Aldundia saria gero eta garrantzi handiago bereganatuz doa, zazpi alditan bakarrik antolatuta bada ere.